

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

32/2019 Foru Agindua, otsailaren 15ekoa, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Martín Gartzandia Gartzandia Gasteizko udalbatzako idazkari nagusiarri eginkizunak metatu eta udal horretako Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoko titularrenak ere betetzeko

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren 2014ko abenduaren 19ko ebazpen bidez, Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoko titular lanpostua sailkatu zen: gaikuntza nazionalako tokiko administrazioeko funtzionarioentzat gordea, Idazkaritza Azpieskalako Goi-mailako Kategorian sailkatua eta izendapen aske bidez betetzekoa.

Ekainaren 20ko 316/2016 Foru Aginduaren bitartez, baimena eman zitzaion orduan udalbatzako idazkari nagusia zen Victoria Idoia Martínez Peñalbari eginkizunak metatu eta udal horretako Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoko idazkariarenak ere betetzeko.

Martínez Peñalba andreak erretiroa hartu duenez eta, beraz, borondatezko baja izan denez, urtarrilaren 21eko 12/2019 Foru Aginduak onetsi zuen Martín Gartzandia Gartzandia jauna izendatzea behin-behinean udalbatzako idazkari orokor.

Gaurko data duen idazkiaren bidez, Gasteizko Udaleko alkateak eskatu du baimena eman dakiola udalbatzako idazkari nagusiarri eginkizunak metatu eta udal horretako Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoko titularrarenak ere betetzeko, legean ezarritako prozeduraren bidez lanpostu hori betetzeko beharrezko izapideak egin bitartean.

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoari buruzkoak, 31 artikuluan honako hau xedatzen du:

50. artikulua. Metaketak

1. Kasuan kasuko autonomia erkidegoko organo eskudunak, bere lurraldearen esparruan, baimena eman diezaike gaikuntza nazionalako funtzionarioei, baldin eta beraientzat gordetako lanpostu batean badihardute, gordetako eginkizunak ere betetzeko gertuko toki erakunde batean, aurreko artikuluko 1. apartatuan jasotako kasuetan eta irauten duten bitartean.

Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiarri dagokio metaketak baimentzea, autonomia erkidego baten lurralde esparrutik kanpokoak badira.

Toki korporazioak eskatuta egingo da metaketa, dagokion funtzionarioaren eta berak destinoa duen erakundearen adostasunarekin.

Transkribatutako artikulua babesa ematen dio xedapen honi, aipatutako dekretuko xedapen gehigarrietako bosgarrenarekin lotuta, eta funtzionarioa ados dago metaketa bidez lanpostua betetzearekin.

Euskal Autonomia Erkidegoan, eskatu den metaketa baimentzeko eskumena duen organoa Arabako Foru Aldundia da, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriko 1. paragrafoan zehazten den bezalaxe.

Azaldutako guztiarengatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Baimena ematea Martín Gartziandia Gartziandia jaunari, zeina Gasteizko Udaleko funtzionarioa den eta behin-behinean udalbatzako idazkari nagusi lanpostua betetzen ari den, eginkizunak metatu eta udal horretako Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoko titularrenak ere betetzeko.

Bigarrena. Baimen honek eragina izango du 2018ko urtarrilaren 16tik lanpostua legez ezarritako prozeduraren bidez bete arte.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 15a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren
eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO*

*Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ*